

# DISEINU GRAFIKOA

## PUBLIZITATEAN

### ARIKETAK

## 05. MARKAREN PAPELERIA

Bigarren ariketa honetan markaren papeleria diseinatuko duzu.

### ZER?

Markaren oinarritzko papeleria diseinatu:

1. Markaren kolore-paleta sortu
2. Papeleria euskarri hauek diseinatu: bisita-txartela, gutun-orria eta gutun-azal.

### ZERTARAKO?

Logotipoa euskarri desberdinetara egokitzeko.

Markaren kolore nagusiak aplikatzeko.

### NOLA?

Markaren elementu identitarioak hartu eta euskarri desberdinetara eraman, pareko estiloa mantenduz:

- Gutun-orria: kontuan izan idazteko espazio handia utzi behar duzula, eta gutun-azalean sartzeko orria tolestu egin behar dela.
- Gutun-azala: kontuan izan helbidea (behean eskuineko partean) eta zigilua (goian eskuineko partean) ipintzeko espazioa utzi behar duzula.
- Bisita txartela: Kontuan izan formatu txikian inprimatuko dela, eta erraz irakurri behar dela informazioa. Argibideak:

Formatu estandarra: 85 mm x 55 mm.

Diseinatu aurreko eta atzeko parteak.

Alde batean logotipoa gehitu.

Beste aldean kontaktu informazioa gehitu: Izen-abizenak, kargua, Enpresa/marka/erakundea (logotipoa), helbide fisikoa, telefonoa, e-maila, web-gunea, edota twitter, skype eta facebook kontuak/ikonoak.